

TOKI GARAPENERAKO BATZORDEA

3.- EZIAGO POLIGONOKO 19 ZENBAKIKO PARTZELARI BURUZKO HIRIGINTZA KONTSULTA. (Txos. YZ 123_21)

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXk, Talleres Mitxelena, S. Coop. Enpresaren izenean, hirigintza kontsulta egiten du Eziago poligonoko 19W. Zenbakian eraikitzeke aukeren inguruan.

Aztertu da udal arkitektoak egindako txostena.

Proposamena:

Tokiko Gobernu Batzarrak hau erantzutea:

- Hernanin indarrean dagoen hirigintza araudia Hernaniko AASSen Berrikusketaren Testu Bateratua da, Udalbatzak 2011 apirilaren 11ean egindako osoko bilkuran behin betiko onartua (aurreratzean AASS) (GAO 90. zkia, 2011-05-13). Egitasmoa AASSek (UE) ZE.04 izendaturiko eremuan kokatzen da.
- AASSetan jasotakoaren arabera, 19W zenbakiko partzela, egun eraikita dagoena, hiri lurzoru finkatuko sailkapena du, B.10 Industri erabilerako Kalifikazio Orokorra eta b.10 Industri erabilerako kalifikazio xehakaturia.
- Indarrean duen arau partikularrak Egungo antolamendua finkatzen du. Antolamendu hori "Eziago poligonoaren Plan Partzialean" zehaztu zen, eta 1967ko otsailaren 3an onartu zuen behin betiko Gipuzkoako Hirigintza Batzordea. Fitxa bereziak, halaber, Udal-baimenaren arabera egindako egungo eraikinak finkatzen ditu. (Ikusi erantzitako 1967ko Plan Partzialaren Ordenantzak eta indarrean den AASSetako Fitxa Berezia).
- 1972. urteko uztailaren 6an Plan Partzialak 10. partzela izendaturiko zati batean bi nabe eraikitzeke baimena eman zien Udal-batzorde iraukorrek Francisco Ferrerari (10A partzela 2.607 m² azalera duena eta sotoko solairuan 100 m², beheko solairuan 1.863,51 m² eta lehenengo solairuan 340 m² eraikiak dituena, egun 19 W zenbakia) eta Antonio Fernándezi (10B partzela 1.029 m² azalera duena, egun 19 zenbakia), Carlos Arruti Carrascoso arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera. Hortaz, proiektu haren arabera eraikitakoa finkatzen du Arau Orokorrek. Bi partzela horien zatiketaren espedienterik ez da aurkitu Udalean eta hortaz, lehenik eta behin zatiketa legezatu beharko litzateke.
- Bestalde, aintzat hartzekoa ere, Hernaniko Udalbatzak 2013ko martxoaren 26an behin betiko onartutako Hirigintza Antolamenduaren Osagarri den Udal Ordenantza Multzoaren I. Liburua (GAO 116. zkia, 2013-06-19). Bertan, besteen artean jasotzen dira Eraikuntza-ordenantzak. Hernaniko Udaleko web orriko honako estekan eskuratu daitezke:
<https://www.hernani.eus/documents/497182/641552/Hirigintza+Araudia/9f4a93f8-76e2-4eef-9be7-735328a7c8aa>
- Azkenik, Osoko bilkurak 2014ko irailaren 30ean behin betikoz onartu zuen "Hernaniko Udalaren hirigintza-lizentziak nola eskatu, nola izapidetu eta horien exekuzioa nola kontrolatu behar den arautzen duen Ordenantza" (2014ko azaroaren 28ko GAO, 248 zk.). Hernaniko Udaleko web orriko honako estekan eskuratu daitezke:

<https://www.hernani.eus/documents/497182/641552/Hirigintza+lizentziak+bideratzeko+Ordenantza/20030379-5279-409c-b7e9-0e57a8e84d82>

- Bestalde kontutan izan beharko dira:
 - * Partzela Urumea ibaiaren lehentasunezko fluxu gunearen barne eta 10 urteko itzulketa-epealdiko uholde-arriskua duen eremuaren barne kokatzen da.
 - * Partzela kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan dago.
 - * Egun dagoen eraikina eraitsi nahi izanez gero eta amiantoa izanez gero, dagokion hondakinen kudeaketa plana onartu beharko da. Ikusi Udal Ordenantza: <https://www.hernani.eus/documents/497182/641552/Amiantoa+izan+ditzaketen+eraiki+netan+elementutan+eta+lursailetan+egin/755e2459-e222-45dd-86d0-52e000f0441c>
-